

Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

0. AURKIBIDEA

0.	AURKIBIDEA	1
1.	SARRERA	3
2.	ONDORIO NAGUSIAK	4
3.	AUZOAK ETA HIRIEN EGITURA	14
4.	HIRI MORFOLOGIA	16
4.1.	KONTZEPTUA	16
4.2.	HIRI MORFOLOGIAREN AUZO RANKINGA	17
4.3.	HIRI MORFOLOGIAREN DIAGNOSTIKOA	18
5.	ZERBITZUEN ESKURAGARRITASUNA	21
5.1.	KONTZEPTUA	21
5.2.	ZERBITZU ESKURAGARRITASUNAREN AUZO RANKINGA	22
5.3.	ZERBITZU ESKURAGARRITASUNAREN DIAGNOSTIKOA	23
6.	MUGIKORTASUN IRAUNKORRA	26
6.1.	KONTZEPTUA	26
6.2.	MUGIKORTASUN IRAUNKORRAREN AUZO RANKINGA	27
6.3.	MUGIKORTASUN IRAUNKORRAREN DIAGNOSTIKOA	28
7.	METABOLISMO DEMOGRAFIKOA	31
7.1.	KONTZEPTUA	31
7.2.	METABOLISMO DEMOGRAFIKOAREN AUZO RANKINGA	32
7.3.	METABOLISMO DEMOGRAFIKOAREN DIAGNOSTIKOA	33
8.	GIZARTE KOHESIOA	36
8.1.	KONTZEPTUA	36
8.2.	GIZARTE KOHESIOAREN AUZO RANKINGA	37
8.3.	GIZARTE KOHESIOAREN DIAGNOSTIKOA	38
9.	ERANSKINA: AUZOEN MUGA GEOGRAFIKOAK	42
9.1.	VITORIA-GASTEIZKO AUZOEN MUGA GEOGRAFIKOAK	42
9.2.	BAIONAKO AUZOEN MUGA GEOGRAFIKOAK	43

9.3. BILBOKO AUZOEN MUGA GEOGRAFIKOAK	44
9.4. DONOSTIAKO AUZOEN MUGA GEOGRAFIKOAK.....	45
9.5. IRUÑAKO AUZOEN MUGA GEOGRAFIKOAK	46

1. SARRERA

Txosten honetan “Euskal Herriko hiriburuetako auzoen iraunkortasun neurgailua” izeneko proiektuaren emaitzen berri ematen dugu. Proiektu esperimental da hau eta bere xedea euskal hiriburu jendetsuenetako auzoen iraunkortasuna neurtzeko sistema bat eraikitzea da. Zailtasunak ez dira gutxi, batetik auzoen mugak ez daudelako behar bezain zehatz, bestetik datuak ez datozelako muga horiekin bat, edo datuok ez direlako bateragarriak entitate desberdinek kalkulatu dituzten aldetik. Azkenik, aipatzekoa da, iraunkortasun kontzeptua bera, indartsua izan arren, ibilbide metodologiko eta epistemologikoa duela egiteko, are gehiago euskal kasuan. Gauzak horrela, proiektu honen xedea auzoetako iraunkortasuna neurtu ahal izateko marko kontzeptual eta metodologiko esperimental bat garatzea izan da, hurrengo urtetan denon artean osatu eta hobetu beharko duguna.

Ariketa honek bost hiriburu, 111 auzo eta 36 adierazle hartzen ditu bere baitan. Aski kopuru handia datu guztiak xehe-xehe eman eta auzoen arteko konparaketak modu argian egin ahal izateko. Beraz, hemen, emaitzen sintesia egiten ahalegindu gara irakurleak ariketak utzitako argazki nagusia eskura dezan. Datu xeheak www.auzoak.eus webgunean topatu daitezke eta azalpen metodologikoak proiektu honen gainerako txostenetan.

2. ONDORIO NAGUSIAK

a) Baiona, hiri-trinkotasun apaleko auzoetan egituratuta

Euskal hiriburuen artean hiri-morfologia kasuistika desberdinak daude. Kasuan kasu, elementu fisiko desberdinek (ibaiak, mendiak, ...) morfologia baldintzatzen dute. Baiona, Iruña, Donostia eta Bilbok hiri erdigunea zeharkatzen duten emari handiko ibaiak dauzkate, eta azken bi hiriburu hauek, inguruko mendiek ezartzen duten orografia zailagatik baldintzatuta daude. Vitoria-Gasteiz, aldiz, lautada baten erdian kokatzen da eta hiri-hazkunderako erosotasun orografikoa dauka.

Orografia alde batera, hiri morfologiaren hezurduran badira bestelako ezaugarri fisiko garrantzitsuak. Hiri eredu iraunkor bat lurraren erabilera trinkoan oinarritzen da, baina hiri-trinkotasuna espazio publikoaren bizigarritasuna eta erosotasuna bermatzen duten beste elementuekin uztartu beharra dago. Euskal Herrian, oro har, Baiona da auzoen dentsitate apalena duen hiriburua, auzo asko urbanizazio egitura eta gune berdeen presentzia oso altua daukate (Baiona Ttipia eta Saint Croix salbuespenak dira). Ondorioz, hirien inguruko lurraren artifizializazio altua errealitate bat da. Hauxe bera gertatzen da Vitoria-Gasteizko Mendizorrotzan edo Donostiako Aieten.

b) Donostian ez bezala, Bilbon hiri-trinkotasun handiko auzok espazio berdeen gabezia

Hiri-trinkotasuna auzoen bizitasun eta iraunkortasun egokirako aldagaia da, eta Baiona bezala, Iruñan trinkotasun gutxiko auzoak ugariak dira. Badira salbuespenak: Alde Zaharra, Azpilagaña eta Errotxapea. Aldiz, Bilboko auzo askotan hiri trinkotasuna handia da eta espazio berdeekiko oreka egokia da auzo zenbaitetan, baina oso dentsitate altuko Bilboko hainbat auzoetan (Ametzola, Santutxu, Solokoetxe edo Matiko) ez dago eraikuntza maila arintzeko baliagarriak diren espazio

berde edo irekien presentziarik. Hortaz, auzo horien bizigarritasuna eta erosotasuna ez da behar lukeen neurrikoa.

Kontrara, Donostian dentsitate altueneko auzoetan hiri dentsitate eta espazio berdeen arteko oreka oso ona da. Auzo batzuetan espazio berdeen azalera urria izanik, inguruko mendiekiko edo parke handiekiko gertutasunak oreka ematen die auzo desberdinei (Amara Berri, Gros eta Erdialdea). Bestalde, Donostian herri izaera duten auzoak ere badaude (Añorga edo Igeldo), gainontzeko auzoetan aplikaturiko parametroen arabera ezin direnak aztertu. Vitoria-Gasteizko ipar-mendebaldeko eta ekialdeko landa eremuan dauden herriekin eta kontzejuekin antzera gertatzen da.

c) Vitoria-Gasteiz hiri morfologia orekatuena duen euskal hiriburua da

Landa eremu horiek alde batera, eta aipaturiko salbuespenen bat edo beste kenduta, Vitoria-Gasteizko auzo gehienetan biztanleria eta etxebizitza dentsitatea aproposa da, eta gainera, espazio berdeen presentzia nabarmena. Argi-ilun batzuk tartean, hiri ikuspegitik Vitoria-Gasteiz da morfologia orekatuena duen Euskal Herriko hiriburua. Gutxi dira gunek berdeen gabezia duten auzoak, eta gabezi horren ikur nagusiak, Coronacion eta Alde Zaharra dira. Nolanahi ere, azken hamarkada luzean eraikitako hiri periferiako auzoen morfologiek (Salburua, Zabalgana, Aretxabaleta-Gardelegi) izaera sakabanatuagoa daukate, hiri-hazkundearen planifikazioa behar bezainbeste trinkoa eta erradiala ez izateagatik. Auzo izaera izatera iritsi ez den Arkaiate da ihardun horren emaitza aldrebestuena (egun, Salburua auzoaren barruan).

d) Baiona inundagarritasun arrisku handieneko hiriburua, Bilbo eta Donostiako zenbait auzo ere bai

Inundagarritasun arriskua nabarmena da hiriburu guztietan dauden ibaiengatik. Zadorrako arroak hiri kongestio txikia dauka eta balizko uholdeen aurrean kalteak txikiagotzeko orube egokiena dauka (Abetxukon metatzen dira balizko arazoak nabarmen). Ordea, ibaia elementu garrantzitsua izan da Baiona, Iruña, Bilbo eta Donostiako hiri-hazkundearen hastapen historikoan, eta ondorioz, egungo inundagarritasun arriskua handiagoa da. Baiona da inundagarritasun handieneko hiriburua

(azalera osoaren %19,8a), baina Euskal Herriko auzoen artean Bilboko zenbait auzo dira inundagarritasun arrisku handiena dutenak (Zorrotzaurre, Castaños eta Alde Zaharra). Sanjorge Sanduzelai, Mousserolles, Errotxapea edo Añorga ere arrisku handikoak dira.

e) Vitoria-Gasteizen da zerbitzuen sare orekatuena, Donostian desorekatuena

Zerbitzuen eskaintza nagusia hiriaren erdigunean metatzea ohikoa da, eta Euskal Herriko hiriburuetan ere, maila batean edo bestean, joera hori da. Bost hiriburuaren artean Vitoria-Gasteiz da salbuespena, bere geografia osoan zerbitzu oso homogeneo eta osatua baitu. Bilbon ere zerbitzuen eskuragarritasunean dagoen oreka maila garrantzitsua da. Kontrara, Donostian ematen dira auzoen arteko desoreka handienak. Iruña eta Baionan ere, azpiegitura zerbitzuen estaldura eskasa edota desorekatua da, erdigunean metatzeko joera gailentzen delarik.

Vitoria-Gasteizko hiri nukleo osoan haurrentzako jolaslekuek, kirol azpiegiturek, hezkuntza zentroek eta zaborra biltzeko edukiontziek zerbitzu oso ona eskaintzen dute. Zerbitzu askoren presentzia auzoan bertan bermatuta dago, hezkuntza zentroak eta kirol azpiegiturak (gizarte-etxeen sarean, nagusiki) nabarmentzekoak direlarik. Bilboko auzoetako zerbitzu estaldura ez da tamaina horretakoa eta erdigunean eskaintza oparoa egon arren, auzo batzuetan osasun zentroen gabezia eta liburutegien falta antzematen da (Uretamendi, Iturrigorri-Peñascal, La Peña edo Zorrotza). Vitoria-Gasteizen ere badira zenbait gabezi txikiagoak, esaterako hainbat auzoetan liburutegi eta osasun azpiegiturek ematen duten estaldura apalagoa.

Donostiako auzo askotan zerbitzu desberdinen eskuragarritasuna ez da batere egokia. Igeldo, Añorga, Ibaeta, Loiola, Martutene, Altza, Ulija, Bidebieta eta Miramon Zorroagan gertatzen da hau. Sakabanatutako auzoen kasuan, joeraz estaldura apalagoa izatea ulergarria da (Añorga, Igeldo, Miramon Zorroaga, ...). Edonola ere, aipaturiko auzoetan osasun zerbitzuen, liburutegi eta kultur azpiegituren eta haurrentzako jolaslekuen estaldura txikia da, izaera trinkoa duten zenbaitzuetan barne (Altza edo Bidebieta). Haur eta lehen hezkuntzako azpiegituren estaldura ere eskasa da. Ostera, Gros, Intxaurren edo Amara Berrin zerbitzu gehien estaldura egokia oso handia da.

f) Argi-ilunak Iruña eta Baionako zerbitzuen sarean

Nafarroa Garaiko hiriburuari dagokionez, nabarmentzekoa da Alde Zaharrean oinarritzko zerbitzuen eskaintzaren estaldura bikaina. Hau ez-ezik, Errotxapea eta Donibaneko zerbitzuen eskaintza eta estaldura oso ona da, baita Ermitagaña Mendebaldean, Mendillorri, Zabalgunean eta Etxabakoitzen ere. Aldiz, gainontzeko auzoetan oinarritzko zerbitzuen estaldura ez da hain indartsua, hiri trinkotasun txikiko auzoetan haxe areagotzea espero daiteke (Sanjorge Sanduzelain edo Milagrosa Arrosadian), baina kasuistika hau ez da gainontzeko auzo hauetan beti ematen. Aipatzekoa da zerbitzu gehien estaldura urria Buztintxuri Euntzetxiki auzoan.

Iruñako zenbait auzoetan bezala, Baionan maiz hiri morfologiak zerbitzuen estaldura egoki baterako oztopoa da. Urbanizazio izaera nagusitzen den Saint Bernard Matras, Saint Etienne Arrousets, Saint Leon eta Mousserolles auzoetan oinarritzko zerbitzu batzuen estaldura eskasagoa da, eta ildo horretan, azpimarratzekoa da osasun, hezkuntza edo kirol azpiegituren estaldura txikia. Euskal Herriko auzo gehienetan bezala, liburutegi eta kultur azpiegituren sarea oso apala da Baionan, Baiona Ttipia eta Erdialdea auzoetan izan ezik.

g) Vitoria-Gasteiz eta Bilboko hiri-morfologiak, euskal hiriburuen morfologia aniztasunaren erakusle

Herritarren mugikortasuna eta hirietako garraio publikoaren diseinuan orografia aldagai garrantzitsua da, eta ikuspegi horretatik, euskal hiriburuak hiru tipologietan sailka daitezke. Alde batetik, orografia laua eta eroso nagusitzen da Vitoria-Gasteizen. Beste muturrean, Bilboko eta Donostiako orografia malkartsua dugu. Bi tipologia hauen artean, Baiona eta Iruñak duten erdibideko tipologia dugu.

Hiriburu bakoitzaren ñabarduretan sakonduz, hirugarren tipologia horren barruan Baiona eta Iruñaren arteko antzekotasunak handiak dira: maila batean ala bestean, %6tik gorako malda auzo guztien orografian presente dago, baina auzoetan ez dago aldapa metaketa izugarriarik. Baionan, aldiz, orografia-konplexutasun handieneko auzoak Beyris eta Citadelle Saint Esprit dira eta Iruñan Alde Zaharra, baina aipaturiko Donostiako edozein auzoko orografia hauena baino askoz konplexuagoa da.

Zalantzarik gabe, orografia-konplexutasunaren ikurrak dira Bilbo eta Donostia. Lau auzoetatik hiruk eraikitako azaleraren %60a azalera malkartsuan kokatzen da (%6tik gorako maldan). Arabella, Uretamendi, Ciudad Jardin, Zurbaran, La Peña, Otxarkoaga, Iturrigorri-Peñascal, Arangoiti, Iturribide, Masustegi eta Uribarri auzoen azaleraren %90tik gora malda garrantzitsua daukate, eta badira orografia konplexua duten beste hainbat auzo ere. Bilboko kasuan, beraz, esan daiteke orografia laua izatea salbuespena dela. Eta salbuespen auzo horiek, hain zuzen ere, Abando, Indautxu eta Zorrotzaurre dira. Donostiari dagokionez, bere 18 auzoetatik 14etan, auzoaren azaleraren %60a baino gehiago gunea malkartsua da; kasurik aipagarrienak Igeldo (%96,8), Ategorrieta Ulia (%88,3), Altza (%86,8) eta Añorgarenak (85,6%) dira.

h) Garraio publikoaren estaldura ona hiriburuetan, ahuldade batzuekin

Garraio publikoaren egokitasuna bere osotasunean neurtzeko aldagai asko hartu beharko lirateke kontuan, baina estalduraren ikuspegia funtsezkoa da eta Euskal Herriko auzoen argazkia parametro homogeneousan neurtzeko parada ezin hobea eskaintzen du. Izan ere, garraio publikoaren sare eraginkor batek, besteak beste, auzoen bazter guztietara hedapena behar du izan.

Oro har, Euskal Herriko auzoen azaleraren laurden bat garraio publikoko geltoki batetik gehienez 300 metroko erradiopean dago. Bost hiriburuaren artean, erradio horren arabera estaldura handiena duen hiriburua Iruña da, ostean Bilbo eta Baionak dute nabarmen. Vitoria-Gasteizko landa eremua alboratzen badugu, Donostia eta Vitoria-Gasteizen antzerako estaldurak dira. Hiriburuetan garraio publikoaren estaldura orokorra ona dela esan beharra dago.

Nolanahi ere, Euskal Herriko auzoetan garraio publikoaren estalduran badira argi-ilun batzuk. Proporzioan, Donostiako kasua da aipagarriena: hiria osatzen duten 18 auzoen artean, zortzi auzotan garraio publikoaren estaldura nahiko urria da (Igeldo, Añorga, Loiola, Martutene, Miracruz Bidebieta, Altza, Miramon Zorroaga eta Ategorrieta Ulia). Bilbon estaldura maila txiki hauek Iturrigorri-Peñascalen, La Peñan eta Altamiran daude, nahiz eta estaldura ahula duten auzo bakarrak ez izan. Baionan, Saint Etienne Arrousets, Mousserolles, Saint Bernard Matras eta Saint Leongo estaldura gainontzeko auzoetan baino nabarmen txikiagoa da. Iruñan, aldiz, aipagarriak dira

Buztintxuri Euntzetxiki, Azpilagaña, Sanjorge Sanduzelai, Iturrama edo Txantrea, eta Vitoria-Gasteizen, landa eremuko auzoak, Aretxabaleta Gardelegi, Adurtza, Abetxuko edo Mendizorrotza.

Aurretik aipatu bezala, auzo batzuetan behar bezalako hiri-trinkotasuna ez egoteak garraio publikoaren sarea eraginkorra izatea zailtzen du, modu garbian Vitoria-Gasteizko landa eremuko auzo bietan edo Baionako Mousserolles eta Saint Etienne Arrousets auzoetan. Beste kasu batzuetan, orografia-konplexutasunak ibilgailuentzako ibilbide eraginkorren aukerak mugatzen ditu. Edonola ere, gabezi guztiek ez diete soilik bi elementu hauei erantzuten.

i) Bidegorriak, guztiz gainditu gabeko ikasgaia

Hiri-mugikortasunari dagokionez, bestalde, bidegorrien sareak auzoetan duen irisgarritasunari eta kotxeak herritarren mugikortasun jarreretan duen eginkizun mailari erreparatu beharra dago. Lehenengoan kasuan, Vitoria-Gasteizko ia auzo guztiek bidegorri sarearen zerbitzu apropos bat dute, baina Donostia eta Bilbon bidegorri sarearen estaldura soilik erdigunetiko periferiako auzoetan da egokia. Baiona eta Iruñak, ordea, ez dute bidegorri sarea behar bezainbeste garatua.

j) Ibilgailu pribatuaren inpaktu handia merkataritza handiko auzoetan

Nabarmena da Euskal Herriko hiriburuetan merkataritza maila handia metatzen den auzoetan ibilgailu pribatuak oraindik ere duen presentzia. Auzoko herritarrengan inpaktu negatiboa izateaz gain, hiri mailako elkarrekintza gune nagusiak diren heinean, espazio publikoaz jabetu eta herritar orok nozitzen duen kutsadura atmosferiko eta akustikoaren erantzulea da. Bilbon Indautxu, Donostian Erdialdea eta Gros, Baionan Erdialdea, Vitoria-Gasteizen Coronacion eta Desamparados edo Iruñan Donibane eta Alde Zaharra egoera horren adibidea dira. Ondorioz, ibilgailu pribatu horien joan-etorrien ibilbide nagusietan automobilaren presentzia oso handia da egun.

k) Euskal Herriko auzoen artean lautik hiruk biztanleria bolumena galdu dute egungo krisi aroan

Euskal Herrian aro demografiko berri bat zabaldu da. Mundu mailako krisialdi ekonomikoak hiriburuetako auzo askoren demografian isla izan du eta, 2011 urteaz geroztik, biztanleria bolumenak soilik Baiona eta Vitoria-Gasteizen egin du gora. Biztanleria galdu duten hiriburu artean, aipagarria da Bilbo (-%2,1), baina joera hau ez da auzo guztietan modu bertsuan eman. Bilboko 40 auzoetatik 31k biztanleria bolumena galdu dute (Ametzola, La Peña eta Bolueta buru). Iruñan, aldiz, 13 auzotik 10ek eta Donostian 18 auzotik 14k (Erdialdeak gehien).

Hargatik, Vitoria-Gasteizen ere badira biztanleria bolumena galdu duten auzoak (30 auzoen artean 23k), Santiago eta Adurtza nabarmen, baita Baionan ere. Bi hiriburu hauetan gainontzekoetan baino garbiagoa da biztanleriaren banaketa espaziala etengabeko mugimenduan dagoen prozesua dela. Azken hamarkadan, gainera, hirigintza jarduera bizia eta etxebizitzaz jabetzeko joera indartsua izan da hiriburuetako zenbait eremutan. Gurean, barne-migrazio edo kanpo inmigrazio joeren artikulatzaile nagusiak etxebizitza eskuragarritasuna eta hiri-hazkundera izan dira. Ondorioz, auzo askotan zahartze handia eta belaunaldien ordezkapen ahula jada errealitate bat da.

l) Etxebizitza eskuragarritasuna eta hiri-hazkundera, belaunaldi segregazioaren gakoak

Auzoetan ziklo demografiko iraunkorrak bermatzearen ikuspegitik belaunaldi aniztasuna bermatzea egoera desiragarriena da, baina migrazio prozesu hauen ondorioz, kasu batzuetan belaunaldi segregazio handia marraztu da hiriburuaren geografian. Zentzu horretan, auzoen metabolismo demografikoa mugatzen duten bi elementu nagusi daude: zahartzearen fenomeno eta 30 eta 44 urte bitarteko biztanleriaren presentzia. Hirigintza eredu hedakorrean hiriko periferian kokaturiko auzo berrietan gazte-helduen metaketa handia da, nabarmen Bilboko Miribillan, Vitoria-Gasteizko Zabalganan eta Salburuan edo Iruñan Buztintxuri Euntzetxiki auzoetan.

Biztanleria multzo hauen jatorria beste auzoak izan diren neurrian, hiri-mailako belaunaldien segregazio espazialaren eragina biderkatu egin da. Hori dela eta, azken lau urteetan auzo batzuen zahartze tasak indar handia hartu du, esaterako Vitoria-Gasteizko Gazalbiden, Pilarren, Arantzabelan, Aranbizkarran, Santiagon, Bilboko Begoñan edo Iruñako Iturrama auzoetan. Baina

zahartze prozesu sakona nozitzen ari dira auzo asko. Muturreko kasuak Vitoria-Gasteizen daude, Gazalbiden, Pilarren, Zaramagan eta Txagorritxun, baina baita Baionako Arenesen, Bilboko Begoñan, Iruñako Donibanen edo Donostiako Erdialdean ere.

m) Belaunaldien ordezkapenerako orubea ez duten auzoetan interbentzio politikak abiatzearen beharra, birgaitzearekin bat

Espero zitekeen moduan, haurren (0-14 urte) presentziak harreman handia dauka guraso gazteak izateko adina duen biztanleriaren presentziarekin. Jaiotzen kopurua gutxitzen hasi bada ere, 2000.ko hamarkada oparoa izan da eta horren lekuko dira Bilboko Miribilla, Iruñako Buztintxuri Euntzetxiki, Vitoria-Gasteizko Zabalgana, Salburua, Arriaga Lakua edo Baionako Sainte Croix. Horrela, auzo hauek egungo gazteen kopurua ordezkatzeko gaitasuna izango duten Euskal Herriko 36 auzoen artean daude. Ez da hau, ordea, Euskal Herriko joera orokorra.

Epe labur eta ertainean erakunde publikoen interbentzioa beharko dutenak egun zahartutako eta zahartze bidean diren auzoak dira, *urrezko auzoak* deritzonak nagusiki. Auzo horien eraikuntza urtea aspaldikoa da eta eraikin askoren birgaitzea edo efizientzia energetikorako moldaketak beharrezkoak. Epe luzeko ikuspegian, ordea, egun 30 eta 44 urte bitarteko belaunaldien metaketa handia duten auzo berriek iraunkortasun demografiko konplexua izango dute etorkizunean.

n) Iturrigorri-Peñascalen eta Aretxabaleta Gardelegin, Bilbon eta Vitoria-Gasteizen, gizarte kohesio ahulenak

Gizarte kohesioa aintzat hartuta, auzoen artean oreka handiena mantentzen duen hiriburua Donostia da. Bilbok eta Vitoria-Gasteizek, aldiz, auzoen arteko desoreka handienak dituzte bere baitan, bai eta euskal hiriburuaren artean gizarte kohesio apalena duten auzoak ere: Iturrigorri-Peñascal eta San Frantzisko auzoak, Bilboko kasuan, eta Aretxabaleta Gardelegi, Vitoria-Gasteizen. Auzo hauen problematikaren atzean auzo gehienek kohesioa soziala higitzen duten bi faktore daude.

Batetik, Bilboko San Frantzisko auzoan Europatik kanpo jaio den biztanleriaren presentzia handiak aspaldidanik etorkinen segregazio eta metaketarako auzoan bihurtu dela erakusten du. Hauxe bera gertatzen da modu apalagoan Bilbo Zaharrean eta Iturrigorri-Peñascalen, Vitoria-Gasteizko Alde Zaharrean eta Coronación-en edo Baionako Sainte Croixen. Txanpon beraren beste aurpegia dira, ordea, Txurdinaga, Miribilla, Aretxabaleta Gardelegi, San Martin, Mendillorri edo Baionako auzo gehienak. Kasu biek indartzen dute hiri mailako etorkinen segregazioa.

Bestalde, Iturrigorri-Peñascalen eta Aretxabaleta Gardelegin ikasketarik gabeko biztanleen presentzia oso altua da eta goi mailako ikasketak dituen biztanleriaren presentzia, berriz, oso baxua. Ikasketa maila apala da auzoen gizarte kohesioa gehien kaltetzen duen faktoreetako bat.

Buztintxuri Euntzetxiki auzoa Iruñako gizarte kohesio egoera kritikoena duen auzoa da. Auzo honetan dauden etxebizitzak %19,7ak ez du erabilera iraunkorrik, hau da, etxebizitza hutsak edo bigarren etxebizitzak dira. Auzo honek ez du hiriburuan berezko kokapen estrategikorik, eta ondorioz, gentrifikazio izpien edo etorkizunean gentrifikazio prozesu bat nozitzeko baldintzak ez ditu betetzen. Nolanahi ere, Iruñako Alde Zaharrak edo Donostiako Erdialdeak duen kokapen estrategikoarekin etorkizunean mota horretako prozesuak martxan jarri daitezke modu batean ala bestean.

Auzoen gizarte kohesio mailan eragiten duen beste faktore garrantzitsua da biztanleriaren gainzahartzea. Aurretik aipaturiko migrazioei oso loturiko errealitate hau nabarmena da hainbat auzotan, Baionako Arenes eta Mousserollesen, Vitoria-Gasteizko Judimendin eta Coronacionen, Bilboko Larraskitu eta Basurtun, Donostiako Erdialdean edo Iruñako Donibanen. Gainzahartzearen hiri-mailako metaketa espaziala zahartzaroaren bakardadean sakontzen du eta belaunaldi segmentazioaren seinalea da, eta elkarrekintza soziala mugatzen duenez gizarte kohesioaren higadura dakar.

o) Baionako Saint Croixen, euskal hiriburuaren artean formazio gabeko herritarren segregazio handiena

Era berean, ikasketarik gabeko eta goi-formazioko biztanleriaren hiri mailako segregazioa eragin dezaketen bi elementu indartsu daude. Herritarren maila sozioekonomikoa eta biztanleriaren


zahartzea. Ildo horretan, nabarmentzekoa da Baionako Saint Croix auzoan dagoen ikasketarik gabekoen presentzia handia eta goi-formaziodunen presentzia txikia. Bilboko Altamiran, Iturrigorri-Peñascalen, Uretamendin edo Otxarkoagan ere antzerako gertatzen da. Vitoria-Gasteizen hau Zaramagan, Abetxukon edo Aranan gertatzen da; Donostian Altzan, Martutenen edo Loiolan. Iruñan ez daude hain ageriko kasuak, baina Errotxapean edo Sanjorge Sanduzelaiaren ere patroia hau da.


p) Alde Zaharrak, hiri-saretze sozialaren metatze guneak Euskal Herrian

Azkenik, gizarte eragileen ehun dentsitateak kohesio sozialean egiten duen ekarpenari erreparatzea komenigarria da. Gizarte eragileen berezko eragin esparrua auzoa, hainbat auzo, hiriburu osoa edo harago doan zehaztu ezina da, baina arazo izan baino ikuspegia aberastu besterik ez du egiten. Oso nabaria da auzo batzuek hiri mailako gizarte eragileen kapitala metatzen dutela, bai alde zaharretan zein erdiguneko beste auzo batzuetan. Hauxe gertatzen da Baiona Ttipian, non Euskal Herriko hiriburuetako auzoen artean dentsitate handiena metatzen den, baina baita Vitoria-Gasteizko, Iruñako, Bilboko eta Donostiako Alde Zaharretan ere.


Elkarrekintza sozialerako bizkarrezurra diren auzo horiek alde batera, aipatzekoa da kirol (Mendizorrotza), hezkuntza (Ibaeta) edo enpresa saretzerako (Miramon Zorroaga) azpiegitura handien inguruan metaturiko gizarte eragileak. Nabarmena da Bilbon Altamira, Elorrieta, Deustu edo Iturrigorri-Peñascalen dagoen gizarte eragileen sarea. Donostian saretze sozial hau indartsua da Igeldon, Amaran eta Añorgan, Iruñan Milagrosa Arrosadian eta Azpilagañan. Vitoria-Gasteizen Anglon, San Martinen, Adurtzan; eta Baionan, Mousserollesen edo Saint Leonen.

3. AUZOAK ETA HIRIEN EGITURA





Donostia




4. HIRI MORFOLOGIA

4.1. KONTZEPTUA

Hiri eredu iraunkor bat lurraren erabilera trinkoan oinarritzen da, besteak beste, eremu naturalaren artifizializazio maila zainduz. Biztanleria-dentsitate aproposa duen lur eremuan baliabide naturalen erabilera murriztea lor liteke, beti ere, funtzionaltasuna galdu gabe. Halaber, espazio publikoan egiten diren ohiko ekintzen bizigarritasun eta erosotasunerako, hirigintzak espazio berde eta gune irekien proportzio orekatua behar du. Esandakoaz gain, bada aintzat hartzeko beste ardatz bat, espazio naturalak eta biodibertsitate aberats baten presentzia zaintzea, hauek bizigarritasun apropos baterako ezinbesteko elementuak dira.

Horregatik, atal honetan lurraldearen ezaugarri fisikoak aztertzen dira. Biztanleria dentsitatea, auzoen eraikuntza maila eta espazio berde zein irekien proportzioak egokiak diren neurtzen da. Aintzat hartzen ditu, halaber, lurraldearen inundagarritasun arriskua eta orografiaren zailtasunak.

4.2. HIRI MORFOLOGIAREN AUZO RANKINGA



PUNTUAZIO HANDIENEN 30 AUZOAK	
Alde Zaharra-Donostia	10
Txagorritxu-Vitoria-Gasteiz	9
Aranbizkarra-Vitoria-Gasteiz	8
San Cristobal-Vitoria-Gasteiz	7
Desamparados-Vitoria-Gasteiz	6
Sansomendi-Vitoria-Gasteiz	5
Zaramaga-Vitoria-Gasteiz	4
Iturrigorri-Peñasgal-Bilbo	3
Gazalbide-Vitoria-Gasteiz	2
Judimendi-Vitoria-Gasteiz	1
El Pilar-Vitoria-Gasteiz	0
Santiago-Vitoria-Gasteiz	0
San Martin-Vitoria-Gasteiz	0
Azpilagaña-Iruñea	0
Ariznabarra-Vitoria-Gasteiz	0
Santa Lucia-Vitoria-Gasteiz	0
Coronación-Vitoria-Gasteiz	0
Miracruz Bidebieta-Donostia	0
Mendillorri-Iruñea	0
Arantzabela-Vitoria-Gasteiz	0
Anglo-Vitoria-Gasteiz	0
Miribilla-Bilbo	0
Zabalgana-Vitoria-Gasteiz	0
Ametzola-Bilbo	0
Otxarkoaga-Bilbo	0
Gros-Donostia	0
Ensanche (Zabalgunea)-Iruñea	0
Iturrama-Iruñea	0
Iralabarri-Bilbo	0
Ensanche (Zabalgunea)-Vitoria-Gasteiz	0

PUNTUAZIO TXIKIENEN 30 AUZOAK	
Sanjorge Sanduzelai -Iruñea	10
Citadelle Saint Esprit-Baiona	9
Añorga-Donostia	8
Mousserolles-Baiona	7
Etxabakoitz-Iruñea	6
Arenes-Baiona	5
Saint Leon-Baiona	4
Beyris-Baiona	3
Bilbo zaharra-Bilbo	2
Zorrotza-Bilbo	1
Ermitagaña Mendebalde-Iruñea	0
Zorrotzaurre-Bilbo	0
Saint Bernard Matras-Baiona	0
Egia-Donostia	0
Atxuri-Bilbo	0
Bolueta-Bilbo	0
Errotxapea-Iruñea	0
Saint Etienne Arroussets-Baiona	0
Miramón Zorroaga-Donostia	0
Martutene-Donostia	0
Larraskitu-Bilbo	0
San Inazio-Bilbo	0
Abetxuko-Vitoria-Gasteiz	0
Olabeaga-Bilbo	0
Arabella-Bilbo	0
Castaños-Bilbo	0
Abando-Bilbo	0
Deustu-Bilbo	0
San Frantzisko-Bilbo	0
Altamira-Bilbo	0



4.3. HIRI MORFOLOGIAREN DIAGNOSTIKOA

Vitoria-Gasteiz da hiri morfologia orekatuena duen euskal hiriburua. Lautada batean eraikita egon arren, biztanleria eta etxebizitza dentsitatea aproposa ditu; soilik azken hamarkada luzean eraikitako hiri periferiako auzoen morfologiak du izaera sakabanatuago bat (landa-eremuek ere ezaugarri hau dute).

Gainera, kasu gehienetan auzoen trinkotasun hau oso ondo uztartzen da beharrezkoak diren espazio berdeen presentziarekin; Coronacion, Alde Zaharra eta beste auzo gutxi batzuk dira gune berdeen gabezia duten bakarrak (<1,5 m²/biztanleko). Lautada baten erdian egoteak hiriari erosotasun ona ematen dio, eta honi esker, hiriaren inundagarritasun arriskua oso baxua da.

Bilbo eta Donostiako hiri morfologiek antzekotasunak daukate, izan ere, hiri erdigunea zeharkatzen duten ibai ondoko lautada eta inguruko mendien arteko dikotomiagatik baldintzatuta daude. Esaterako, Bilbok oreka ona dauka hiri trinkotasunaren eta espazio berdeen artean, baina oso dentsitate




>> *Vitoria-Gasteiz hiri-morfologia orekatuena duen euskal hiriburua da*

>> *Bilbon hiri-trinkotasun handiko auzoetan espazio berde eta irekien gabezia dago*




altuko hainbat auzoetan, Ametzola (373,7 etxebizitza/Ha), Santutxu (248,8), Solokoetxe (227,2) edo Matikon (233,6), ez dago eraikuntza maila arintzeko baliagarriak diren espazio berde edo irekien presentziarik. Bilboko hiri morfologian kontuan hartu beharreko beste faktore garrantzitsu bat auzoen inundagarritasuna da, Nerbioi ibaiak zeharkatzen dituen auzo gehienek uholde arrisku handia baitute. Auzo hauen artean Zorrotzaurre (%90,5), Castaños (%64,4) eta Alde Zaharra (%49,1) dira auzoaren eremu handiena urez betetzeko arriskua dutenak.

Donostiari dagokionez, hiri dentsitate eta espazio berdearen arteko oreka oso ona da dentsitate altueneko auzoetan. Nahiz eta auzo batzuetan espazio berdeen azalera urria izan (Gros, Erdialdea eta Amara Berri), inguruko mendiekiko edo parke handiekiko gertutasunarekin arazo honi aurre egiten dio. Kontrakoz, hiriburu honek baditu lur-eremu zabala bereganatzen duten hainbat auzo barreiatu: Aiete (21,2 etxebizitza/Ha), Ulia (25,9 etxebizitza/Ha), Miramon Zorroaga (2,6 etxebizitza/Ha), Añorga (4,2 etxebizitza/Ha) edo Igeldo (8,0 etxebizitza/Ha). Kasuan kasuko errealitatea aintzat hartu behar da, baina biztanleria eta etxebizitza dentsitate baxu honek orografiarekin lotura du eta auzoen baliabideen beharrean eragin zuzena dauka;



>> Uholde arrisku handia dago Ibaizabal ibaiaren inguruko auzo gehienetan



>> Baiona hiri-trinkotasun txikienerako euskal hiriburua da



adibidez Igeldoren azaleraren %96,8 aldapatsua da, eta Aieten berriz balio hau %82,5eko da.

Orografia arazoez gain, Donostiak ere baditu uholdeak pairatu ditzaketen auzoak. Urumearen presentziak inundagarritasun arrisku nabaria ematen die Martutene eta Egia auzoei, eta modu berean, Oria ibaiak Añorga auzoaren parte den Zubietari.

Iruña, eta bereziki Baiona, Euskal Herriko hiriburuetako auzoen artean dentsitate apalena duten hiriburuak dira. Iruñan Alde Zaharra (128,8 etxebizitza/Ha), Azpilagaña (101,8 etxebizitza/Ha) eta Errotxapea (94,6 etxebizitza/Ha) auzoek dituzte soilik hirien bizitasun eta iraunkortasunerako morfologia trinkotasun eraginkorrak. Bestalde, gune berdeen presentzia ona da auzo gehienetan eta soilik Sanjorge Sanduzelai (2,9 m²/biztanle), Errotxapea (4,0 m²/biztanle) eta Alde Zaharrak (6,9 m²/biztanle) dute gune hauen ratio apalago bat; ikus daiteke Errotxapeak zein Alde Zaharrak ez dutela beraien eraikuntza dentsitatea arintzeko nahikoa espazio berde eta ireki.

Orografiari dagokionez, esan daiteke maldek Iruñako auzoen artean sortzen dutela oztopo handiena: Alde Zaharra-Txantrea, Alde Zaharra-Erotxapea, Zabalgunea-Txantrea eta Donibane-Sanjorge Sanduzelai. Auzo gehienetan, gune malkartsuek azaleraren %20-40 bitartean bereganatzen dute, baina ezin esan daiteke eremu hauek auzoen eguneroko dinamikarako oztopo nabarmen bat direnik; Alde Zaharrean (%47,1), Mendillorri (47,9) eta Azpilagañan (%57,9), ordea, azalera aldapatsuak zabalera gehiago okupatzen dute, eta ondorioz, orografiari loturiko zailtasunak areagotzen dira. Bestalde, hirigintzako etorkizuneko planeamenduetan, Arga ibaiaren inguruko auzoen inundagarritasun arriskua presente izatea ezinbestekoa da.

Esan bezala, Baiona da hiri morfologia barreiatuena duen hiriburua. Bere orografiak erraztasun hori eskaini du, eta ondorioz, auzo askok urbanizazio egitura dute, eta honi lotutako etxebizitza dentsitate apala: Mousserolles (7,8 etxebizitza/Ha), Saint Etienne Arrousets (8,3 etxebizitza/Ha) eta Saint Croix (11,1 etxebizitza/Ha). Horiek horrela, gune berdeen presentzia bermatuta dago, baina aintzat hartu behar da hiri egitura honek lur-eremua oso zabala artifizializatzen duela. Gainerako hiriburuetan gertatzen den bezalaxe, Baionan ere Aturri ibaiak zeharkatzen dituen auzoetan uholde arriskua handia da.


5. ZERBITZUEN ESKURAGARRITASUNA

5.1. KONTZEPTUA

Herritarren bizi-kalitate egokiak oinarrizko zerbitzuak eskuragarri izatea behar du. Ikuspegi horretatik pertsona ororen eskubidea da oinarrizko beharrak aseko dituen zerbitzu azpiegiturretara irisgarritasun egokia bermatua izatea. Hirigintza ikuspegi batetik espazio publikoak zenbat eta erabilgarritasun handiagoa izan orduan eta anitzagoa izango da beronen erabilera eta auzotarren arteko hartu-emana. Horrek, ondorioz, zerbitzuetara iristeko beharrezkoa den garraiorako energia murrizteko aukera eman dezake.

Lurraldearen ikuspegi holistiko batetik, hiriek lurraldeko zerbitzuak metatzen dituzte baina bere baitan zerbitzuen banaketa geografikoa ez da beti behar bezain orekatua. Atal honetan, beraz, oinarrizko zerbitzuek duten hedapen-maila neurtzen da. Erabilera eremua gehienez 600 metroko erradioko distantzia da (300 metro, haurrentzako jolaslekuen kasuan; 150 metro, hondakinak sailkatzeko edukiontzien kasuan).

5.2. ZERBITZU ESKURAGARRITASUNAREN AUZO RANKINGA



PUNTUAZIO HANDIENEN 30 AUZOAK
Atxuri-Bilbo
Solokoetxe-Bilbo
Alde Zaharra-Vitoria-Gasteiz
Anglo-Vitoria-Gasteiz
San Frantzisko-Bilbo
Bilbo Zaharra-Bilbo
Coronación-Vitoria-Gasteiz
Arantzabela-Vitoria-Gasteiz
Ametzola-Bilbo
Judimendi-Vitoria-Gasteiz
Matiko-Bilbo
Pilar-Vitoria-Gasteiz
Aranbizkarra-Vitoria-Gasteiz
Santutxu-Bilbo
Alde Zaharra-Bilbo
Arana-Vitoria-Gasteiz
Txagorritxu-Vitoria-Gasteiz
Ariznabarra-Vitoria-Gasteiz
Gazalbide-Vitoria-Gasteiz
Gros-Donostia
Zaramaga-Vitoria-Gasteiz
San Inazio-Bilbo
Alde Zaharra-Iruña
Abando-Bilbo
Castaños-Bilbo
Santiago-Vitoria-Gasteiz
Uribarri-Bilbo
Iralabarri-Bilbo
Iturribide-Bilbo
Desamparados-Vitoria-Gasteiz

PUNTUAZIO TXIKIENEN 30 AUZOAK
Ipar mend. landa eremua-Vitoria-Gasteiz
Ekialdeko landa eremua-Vitoria-Gasteiz
Aretxabaleta Gardelegi-Vitoria-Gasteiz
Igeldo-Donostia
Añorga-Donostia
Miramón/Zorroaga-Donostia
Iturrigorri-Peñascal-Bilbo
Saint Etienne Arrousets-Baiona
Martutene-Donostia
Ali Gobeo-Vitoria-Gasteiz
Loiola-Donostia
La Peña-Bilbo
Altamira-Bilbo
Ibaeta-Donostia
Ulia-Donostia
Altza-Donostia
Buztintxuri Euntzetxiki-Iruña
Zurbaran-Bilbo
Mendizorrotza-Vitoria-Gasteiz
Bidebieta-Donostia
Saint Bernard Matras-Baiona
Mousserolles-Baiona
Ciudad Jardin-Bilbo
Saint Leon-Baiona
Otxarkoaga-Bilbo
Uretamendi-Bilbo
Adurtza-Vitoria-Gasteiz
Sanjorge Sanduzelai-Iruña
Zorrotza-Bilbo
Milagrosa Arrosadia-Iruña



5.3. ZERBITZU ESKURAGARRITASUNAREN DIAGNOSTIKOA

Euskal Herriko hiriburuak zerbitzuen eskaintza nagusia hiriaren erdigunean kokatzeko joera dute. Bilbo, eta bereziki Vitoria-Gasteiz, lurralde osoan zerbitzu homogeneoena duten hiriburuak dira. Iruña eta Baiona, berriz, azpiegitura zerbitzu asko hiriko erdigune historikoan kontzentratuta dituzte: Alde Zaharrean, Donibanen eta Errotxapean lehenengoaren kasuan; Erdigunean eta Baiona Ttipian bigarrenaren kasuan.

Haurrentzako jolaslekuek, kirol azpiegiturek, hezkuntza zentroek eta zaborra biltzeko edukiontziek zerbitzu oso ona ematen dute Vitoria-Gasteizko hiri nukleo osoan (zerbitzu hauen estaldura %75-100 bitartekoa da). Aretxabaleta Gardelegi auzoan eta Ekialdeko zein Ipar-mendebaldeko landa-eremuetan zerbitzu hauen eskuragarritasuna mugatua da, baina auzo hauen bizigarritasuna ezin daiteke hiriko gainerako auzoen parametro berdinetan aztertu. Bestalde, liburutegi eta osasun azpiegiturek ematen duten estaldura apalagoa da hiri nukleoko hainbat auzoetan, izan ere, Salburua eta Zabalgana oraindik garapen fasean dauden auzoak dira (osasun azpiegituren estaldura %40



>> Auzoen arteko zerbitzuen sare orekatuena Vitoria-Gasteiz eta Bilbon kokatzen da. Donostiak, aldiz, sare desorekatuena dauka



ingurukoa da eta liburutegiena berriz %25-55 bitartekoa), Ali Gobeok eta Sansomendik industria gunen zabala dute beraien eremu barruan (osasun azpiegituren estaldura %29,0koa da), eta Mendizorrotza etxebizitza familibakar asko dituen auzoa da (osasun azpiegituren estaldura %5,3koa eta liburutegi zerbitzuen estaldura %7,8koa da).

Donostian Igeldo, Añorga, Loiola, Martutene eta Miramon Zorroagan zerbitzuen eskuragarritasunaren kalitatea ez da ona. Miramon Zorroaga oso sakabanatutako etxebizitzek osatuta dago eta gainerako auzoek orografia konplexua dute edo Donostiaren nukleotik kanpo dauden nukleo txikiak dira. Horiek horrela, auzo hauen liburutegi, osasun eta hezkuntza azpiegiturretan gabezia aipagarria da (kasurik hoberenean zerbitzuaren estaldura %18koa da soilik). Donostiako hiri trinkoa osatzen duten auzoen azpiegitura kalitatea ona da, baina ekialdeko auzoetan kalitate honek ere behera egiten du: Uliá, Bidebieta eta Altzan liburutegi zerbitzu egokitasuna ez da auzoaren %40ko estaldura izatera iristen, eta osasun zerbitzuen estaldura %30tik beherakoa da).

Bilboko erdigunean dauden auzoek ere zerbitzu eskaintza oparoa dute. Gainera, kirol azpiegituren zein hezkuntza zentroek ematen duten zerbitzua oso aproposa da gainerako auzoetan. Aitzitik, zentrotik aldentzen diren

Donostia



>> Euskal hiriburuetan erdigunean eta bere inguruuetako auzoetan zerbitzuen sarea egokia da oro har

>>Donostian Igeldo, Añorga, Martutene eta Miramon Zorroagan zerbitzuen eskuragarritasuna ez da ona

Iruña




auzoetan zerbitzuen kalitateak behera egiten du: osasun zentroen gabezia, liburutegien falta, jolaslekuen presentzia urria, eta kasu batzuetan hezkuntza zentroen gabezia. Adibide batzuk jartze aldera, Altamira, Iturrigorri eta La Peñan auzoetan hezkuntza zerbitzuen estaldura ez da %20ra iristen eta osasun azpiegituren zerbitzua %15etik beherakoa da. Aipagarria den beste zerbitzu gabezi bat liburutegi eta kultur azpiegiturena da, izan ere, Bilboko periferiako 16 auzotan ekipamendu hauek ematen duten eskaintza hutsaren hurrengoa da.

Iruñaren kasuan, Alde Zaharrak bakarrik bermatzen du oinarritzko zerbitzuen eskaintza osatu bat. Haur jolasen estaldura hegoaldeko auzoetan %40tik beherakoa da esaterako, eta iparraldeko Buztintxuri Euntzetxiki auzoan soilik %10ekoa. Liburutegi eta Kultur etxeen zerbitzuak ere haur jolasen estalduraren joera berdina du. Iruñan, kirol azpiegiturak eta hezkuntza zentroak dira auzoen artean homogeneoenak diren zerbitzuak.

Errealitate antzekoa bizi du Baionak, izan ere, bere hiri morfologiak asko zailtzen du zerbitzuen eskuragarritasuna auzo guztietan egokia izatea. Horiek horrela, urbanizazioz beteta dauden Saint Bernard Matras, Saint Etienne Arrousets, Saint Leon eta Mousserolles auzoen osasun zerbitzu, hezkuntza zentro eta kirol azpiegituren presentzia ez da gainerako auzoen mailara iristen. Liburutegi eta kultur azpiegituren sarea oso apala da Baionan, eta hauek soilik Baiona Ttipian (%98,6) eta Erdialdean (%91,6) aurki daitezke; haurrentzako jolasguneen eskaintza maila ordea mugatua da hiriburu osoan (kasu gehienetan %30tik beherako estaldura ematen dute).

>> Argi-ilunak Iruña eta Baionako auzoen zerbitzu sarean

>> Baiona Ttipia eta Erdialdean salbuestuz, liburutegi eta kultur azpiegituren sarea apala da Baionan



6. MUGIKORTASUN IRAUNKORRA


6.1. KONTZEPTUA

Hiriko guneen erabilera funtzional desberdinak direla-eta, hiritarrek eguneroko eginbeharrei erantzuteko hiriko puntuen artean mugitu beharra izaten dute. Desplazamendu hauetan ibilgailu pribatuaren erabilera nagusitu da azken urteotan. Joera honek, espazio publikoaren diseinuan errepide eta aparkalekuen presentzia indartzea eragin du; gainera, mugikortasun eredu honi lotutako energia kontsumoa altua izateaz gain hiriaren kutsaduraren erantzule nagusienetarikoa da.

Mugikortasun eredu iraunkor baterako, hiriko desplazamenduen subjektu nagusia oinezkoak, bizikletak eta garraio publikoa izan behar dira. Hau lortzeko gako nagusia, batetik, lurraldearen funtzio desberdinen arteko gertutasuna dago (etxebizitza, lanpostua, aisia, zerbitzuak...), eta bestetik, bidegorri sare eta garraio publikoaren bidez ibilgailu pribatuaren alternatiba on bat eskaintzea.

Atal honek hiriko eremu funtzional desberdinen arteko desplazamendua modu iraunkorrean bermatuta dagoen aztertzen du. Adierazleek bidegorri sareak eta garraio publikoak duten estaldura neurtzen dute, eta auzoek duten ibilgailu pribatuen presentzia txarretsi.

6.2. MUGIKORTASUN IRAUNKORRAREN AUZO RANKINGA



PUNTUAZIO HANDIENEN 30 AUZOAK	
Santiago-Vitoria-Gasteiz	
Zaramaga-Vitoria-Gasteiz	
Aranbizkarra-Vitoria-Gasteiz	
Ariznabarra-Vitoria-Gasteiz	
Judimendi-Vitoria-Gasteiz	
Pilar-Vitoria-Gasteiz	
Lovaina-Vitoria-Gasteiz	
Gazalbide-Vitoria-Gasteiz	
Amara Berri-Donostia	
Txagorritxu-Vitoria-Gasteiz	
Errotxapea-Iruña	
San Cristobal-Vitoria-Gasteiz	
Anglo-Vitoria-Gasteiz	
Arantzabela-Vitoria-Gasteiz	
Castaños-Bilbo	
Bilbo Zaharra-Bilbo	
San Inazio-Bilbo	
Basurtu-Bilbo	
Desamparados-Vitoria-Gasteiz	
Miribilla-Bilbo	
Coronación-Vitoria-Gasteiz	
Zabalgana-Vitoria-Gasteiz	
Salburua-Vitoria-Gasteiz	
Santa Lucia-Vitoria-Gasteiz	
San Martin-Vitoria-Gasteiz	
Abando-Bilbo	
Arana-Vitoria-Gasteiz	
Zabala-Bilbo	
Ibarrekolanda-Bilbo	
Zorrotzaurre-Bilbo	

PUNTUAZIO TXIKIENEN 30 AUZOAK	
Igeldo-Donostia	
Ipar mend. landa eremua-Vitoria-Gasteiz	
Iturrigorri-Peñasal-Bilbo	
La Peña-Bilbo	
Ekialdeko landa eremua-Vitoria-Gasteiz	
Altamira-Bilbo	
Aretxabaleta Gardelegi-Vitoria-Gasteiz	
Añorga-Donostia	
Miracruz Bidebieta-Donostia	
Loiola-Donostia	
Saint Etienne Arrousets-Baiona	
Altza-Donostia	
Uretamendi-Bilbo	
Ategorrieta Ula-Donostia	
Martutene-Donostia	
Miramón Zorroaga-Donostia	
Buztintxuri Euntzetxiki-Iruña	
Mousserolles-Baiona	
Otxarkoaga-Bilbo	
Zurbaran-Bilbo	
Saint Leon-Baiona	
Azpilagaña-Iruña	
Ciudad Jardín-Bilbo	
Arangoiti-Bilbo	
Iturrama-Iruña	
Sanjorge Sanduzelai-Iruña	
Adurtza-Vitoria-Gasteiz	
Saint Bernard Matras-Baiona	
Etxabakoitz-Iruña	
Abetxuko-Vitoria-Gasteiz	



6.3. MUGIKORTASUN IRAUNKORRAREN DIAGNOSTIKOA

Baiona, Iruña eta bereziki Vitoria-Gasteizek orografia laua dute, eta honek hiriko mugikortasun iraunkor baterako aukerak errazten ditu. Aitzitik, Donostiak eta Bilbok, orografia konplexuagoak dauzkate eta horrek mugikortasun zerbitzuen eskaintza on bat izatea gaitzago bihurtzen du. Bilboko kasuan, lau auzoetatik hiruk bere azaleraren %60a baino gehiago maldadun eremuan eraikia dute (%6tik gorako maldan). Orografia honek, batetik bidegorri sarearen estaldura zailtzen du, eta bestetik, oinezkoen desplazamenduak oztopatzen ditu.

Horiek horrela, Vitoria-Gasteizko ia auzo guztiek dute bidegorri sarearen zerbitzu apropos bat (landa eremuetako auzoak kenduta estaldura %75etik gorakoa da auzo guztietan), baina Donostia eta Bilboko kasuetan bidegorri sareak ematen duen estaldura soilik egokia da erdigunetik gertu dauden auzoentzat. Bilbon esaterako Altamira, Uretamendi, Iturrigorri-Peñascal eta Arabella auzoek ez dute bidegorririk, eta Donostian, malkartsuenak



>> Vitoria-Gasteizek bidegorri sare zabala dauka



diren auzoetan zerbitzuak %20tik beherako estaldura du.

Kontrako errealitatea dute, ordea, Baiona eta Iruñak. Hiri morfologiak zailtasun berezirik ez ezarri arren, hauek ez dute bidegorri sare zerbitzu aproposik auzoei mugikortasun zerbitzu iraunkor bat eskaini ahal izateko. Zerbitzuaren estaldura maila altuenak zentroko auzoetan topatzen dira: Baionaren kasuan, Baiona Ttipian (%82,8) eta Centre Villen (%79,4), eta Iruñaren kasuan Errotxapean (%95,8), Ensanchen (%75,1) eta Donibanen (%66,5).

Orokorrean, Euskal Herriko hiriburu nagusiek garraio publikoaren estaldura oso ona dutela esan beharra dago. Garraio publiko zerbitzua urriagoa duten auzoen ezaugarri nagusienetako bat landa-eremu, mendi edo industria guneen ondorio den eraikuntza dispersioa da. Ildo honetan, kasu kritikoena Iruñak dauka, hiri nukleoko hainbat auzo garraio publikoaren %70eko estaldurara ez baitira iristen: Txantrea (%58,3), San Jorge Sanduzelai (%51,7), Iturrama (%57,1) eta Azpilagaña (%43,6). Estaldura egokirik gabeko azalera proportzio handiak dira eta honek ez du errazten ibilgailu pribatua ordezkatzeko gaitasuna, garraio publikoaren eskaintza urria baita. Bilbo berriz, bere orografiak bizikleta eta oinezko desplazamenduetan eragiten duen oztopoari aurre egiteko garraio publikoaren zerbitzu oso

Donostia



>> Bidegorrien gabezia handia da Baionan eta Iruñan; Bilbon eta Donostiako auzo periferikoetan ere.

Iruña



>> Orokorrean, garraioa publikoaren estaldura ona da euskal hiriburuetan

>> Garraio publiko zerbitzua urriagoa duten auzoen artean ezaugarri nagusienetako bat landa-eremu, mendi edo industria guneen ondorio den eraikuntza dispersioa da

ona du (%75etik gorako estaldura ia auzo guztietan), eta soilik orografia konplexua duten Iturrigorri-Peñascal (%12,5) eta La Peñan (%13,2) zerbitzuaren kalitateak behera egiten du.

Donostiako nukleoak ere garraio publikoaren zerbitzu oso ona dauka (%90tik gorako estaldura). Aipagarria da ordea, nukleotik urruntzen diren auzoetan zerbitzu honek nola egiten duen behera; adibidez, autobus eta tren geltokiek ematen duten estaldura %18koa da Añorgan, %21ekoa Loiolan, %22,5ekoa Martutenen eta %28,8koa Altzan.

Aipatutako mugikortasun eredu iraunkorraren muga nagusia kotxeen erabilera da. Adierazgarria da Donostia eta Bilboko erdiguneko auzoetan, hots, merkataritza maila handia metatzen den auzoetan, ibilgailu pribatuak duen presentzia. Donostiako kasuan hau nabarmena da Erdigunean eta Grosen. Bilboko kasuan, berriz, aparkalekuen presentzia handia dago Indautxun, Ametzolan eta San Frantziskon: kasu guztietan, aparkalekuen eskaintza 80 aparkaleku/Ha-tik gorakoa da. Auzo hauetan ibilgailu pribatuak duen zentralitateari aurre egiteko neurriak hartzea komenigarria litzateke.

Baiona



>> Merkataritza maila handia metatzen den auzoetan ibilgailu pribatuaren presentzia nabarmena da. Bilbon Indautxun, Donostian Erdialdean eta Grosen, Vitoria-Gasteizen Coronacion eta Desamparadosen eta Iruñan Alde Zaharra eta Donibanen

7. METABOLISMO DEMOGRAFIKOA


7.1. KONTZEPTUA

Hiri baten parametro demografiko egokiak zehaztea hausnarketa antzua gerta liteke. Mendebaldeko ezaugarri demografikoak oso presente daude egungo Euskal Herrian, baita bere hiriburuetan ere. Biztanleriaren zahartze prozesua aurrera doa, bizi-itxaropena handia da gurean eta jaiotza kopurua murrizten hasia da indartzen ari diren familia eta bizi eredu berrietara egokituz.

Auzo eta hiri baten metabolismo demografikoa neurtzeko biztanleria fluxuaren joera aintzat hartzeaz gain, bestelako segregazioak ere kontuan hartu behar dira, hala nola belaunaldien artekoa edo sexuen artekoa. Auzo guztietan ziklo demografiko iraunkorra bermatzeko belaunaldien arteko ordezkapena errazten duen egitura demografikoa izatea izan daiteke gakoa, horrek, halaber, berarekin ekar baitezake beste hainbat prozesu iraunkor, hala nola, bizitasun soziala, txikizkako merkataritzaren iraunkortasuna zein hirigintza oreka.

Maiz hirigintza arloko planifikazioan belaunaldi segregazioak auzoetan eragiten dituen gorabeherak ez dira beti behar bezala kontutan hartzen. Horiek horrela, atal honetan auzoetako biztanleriaren bilakaera eta zaharberritzea neurtzen dira, auzoetako adin maila desberdinen arabera segregazioa aintzat hartuz.

7.2. METABOLISMO DEMOGRAFIKOAREN AUZO RANKINGA



PUNTUAZIO HANDIENeko 30 AUZOAK	
Amara Berri-Donostia	
Añorga-Donostia	
Ategorrieta Ulia-Donostia	
Milagrosa Arrosadia-Iruñea	
Abetxuko-Vitoria-Gasteiz	
Errekaldeberri-Bilbo	
Ali Gobeo-Vitoria-Gasteiz	
Larraskitu-Bilbo	
San Inazio-Bilbo	
Egia-Donostia	
Antiguo-Donostia	
Zorrotza-Bilbo	
Loiola-Donostia	
Iturribide-Bilbo	
Solokoetxe-Bilbo	
Abando-Bilbo	
Atxuri-Bilbo	
Matiko-Bilbo	
Saint Etienne Arrousets-Baiona	
Citadelle Saint Esprit-Baiona	
Uretamendi-Bilbo	
Ipar mend. landa eremua-Vitoria-Gasteiz	
Iralabarri-Bilbo	
Zabala-Bilbo	
Ermitagaña Mendebalde-Iruñea	
Aretxabaleta Gardelegi-Vitoria-Gasteiz	
Arangoiti-Bilbo	
Txantrea-Iruñea	
Indautxu-Bilbo	
Miracruz Bidebieta-Donostia	

PUNTUAZIO TXIKIENeko 30 AUZOAK	
Miribilla-Bilbo	
Buztintxuri Euntzetxiki-Iruñea	
Salburua-Vitoria-Gasteiz	
Zabalgana-Vitoria-Gasteiz	
Santiago-Vitoria-Gasteiz	
Gazalbide-Vitoria-Gasteiz	
Mendillorri-Iruñea	
Pilar-Vitoria-Gasteiz	
Petit Bayonne (Baiona Ttipia)-Baiona	
Txagorritxu-Vitoria-Gasteiz	
Zaramaga-Vitoria-Gasteiz	
San Martin-Vitoria-Gasteiz	
Desamparados-Vitoria-Gasteiz	
San Cristobal-Vitoria-Gasteiz	
San Frantzisko-Bilbo	
Lovaina-Vitoria-Gasteiz	
Arana-Vitoria-Gasteiz	
Mendizorrotza-Vitoria-Gasteiz	
Anglo-Vitoria-Gasteiz	
Santa Lucia-Vitoria-Gasteiz	
Coronación-Vitoria-Gasteiz	
Judimendi-Vitoria-Gasteiz	
Centre Ville (Erdialdea)-Baiona	
Arriaga Lakua-Vitoria-Gasteiz	
Elorrieta-Bilbo	
Iturraina-Iruñea	
Adurtza-Vitoria-Gasteiz	
Aranbizkarra-Vitoria-Gasteiz	
Azpilagaña-Iruñea	
Arenes-Baiona	


0-1 2 3 4 5 6 7 8 9 10

7.3. METABOLISMO DEMOGRAFIKOAREN DIAGNOSTIKOA

2011 urteaz geroztik biztanleria bolumenak soilik Baiona eta Vitoria-Gasteizen egin du gora. Biztanleria galdu duten hiriburuaren artean, Bilbok pairatu du galera handiena (-%2,1). Errealitate hau modu gordinagoan islatzen da auzo mailako erradiografian: Bilboko 40 auzoetatik 31k biztanleria bolumena galdu dute (Ametzola, La Peña eta Boluetaren kasuan oso nabarmen), Iruñan 13 auzotik 10ek galdu dute eta Donostian 18 auzotik 14k (Erdialdean gehien).

Nolanahi ere, Vitoria-Gasteizen ere badira biztanleria bolumena galdu duten auzoak (30 auzoen artean 23k) eta joera horren muturrean Santiago (-%10) eta Adurtza (-%9,5) daude. Antzerako gertatu da Baionako auzoen kasuan,

modu apalagoan izan bada ere. Nolabait, hiriburuetako biztanleriaren banaketa espaziala etengabeko mugimenduan dagoen prozesua da (indartsua azken hamarkadan) eta prozesu hauen atzean faktore desberdinak daude: etxebizitza eskuragarritasuna, hiri-hazkundera edo zahartzearen ondorioz datorren ordezkapen falta, besteak beste.



>> Egungo krisi aroan euskal hiriburuetako auzoen hiru laurdenek biztanleria galdu dute

>> Etxebizitza eskuragarritasuna eta hiri-hazkundera, biztanleriaren barne



Prozesu hauek auzoen ziklo demografiko iraunkorra baldintzatzen dute bete-betean, maiz belaunaldi segregazio bortitzen bidez. Hain zuzen horregatik, epe luzeko ikuspegitik edozein auzoren metabolismoan belaunaldi aniztasuna egotea gerta daitekeen egoera desiragarriena da.

Zentzu horretan, patroi nagusian auzoen metabolismo demografikoan eragiten duten bi elementu nagusi daude: zahartzearen fenomeno eta 30 eta 44 urte bitarteko biztanleriaren presentzia. Azken hauen metaketa izugarria da Bilboko Miribillan, Vitoria-Gasteizko Zabalganan eta Salburuan eta Iruñan Buztintxuri Euntzetxiki auzoetan. Hau da, hirigintza eredu hedakorrean gazte-helduen metaketa handia da nagusiki hiriko periferian kokaturiko auzo berrietan. Baina biztanleria multzo honen gehiengoak beste auzoetan du jatorria, bertako zahartze fenomeno areagotuz. Ez da kasualitatea soilik azken lau urteetan zahartze tasa 10 puntu igo izana Vitoria-Gasteizko Gazalbiden, edo bost puntutik gora igo izana Vitoria-Gasteizko Pilarren, Arantzabelan, Aranbizkarran, Santiagon, Bilboko Begoñan edo Iruñako Iturrama auzoetan.


Dena den, 30-44 urteko biztanleria metatzen duten auzo horiek egun ez dute berezko arazo ikusgarriarik, baina egoera bat-batean oso bestelakoa izan daiteke bi edo hiru hamarkada barru eta baliabide publiko handiak inbertitu

>> 30-44 urte bitarteko herritar ugari Bilboko Miribillan, Vitoria-Gasteizko Zabalganan eta Salburuan edo Iruñako Buztintxuri Euntzetxikin.

>> Biztanleriaren barne mugimendu batzuk belaunaldi segregazio handia eragin dute. Vitoria-Gasteiz da kasu



>> Belaunaldi segregazioak auzo gehienen biztanleriaren ordezkapena are zailagoa bihurtu du.



beharko dira hiri periferia horietan.

Jakina denez, haurren (0-14 urte) presentzia mailak harreman handia dauka guraso gazteak izateko adina duen biztanleriaren presentziarekin. Jaiotzen kopurua gutxitzen hasi da jada baina 2000ko hamarkada oparoa izan da eta hori oso nabarmena da Bilboko Miribillan, Iruñako Buztintxuri Euntzetxikin, Vitoria-Gasteizko Zabalganan, Salburuan, Arriaga Lakuan edo Baionako Sainte Croix auzoetan. Joera demografiko orokorra bestelakoa izan arren, aipaturiko auzo hauek egungo gazteen kopurua ordezkatzeko gaitasuna izango duten Euskal Herriko 36 auzoen artean daude.

Baiona



>> Dagoeneko euskal hiriburuetako auzo askotan zahartze prozesu sakona errealitate bat da

Bien bitartean, zahartze prozesu sakona nozitzen ari dira auzo asko. Muturreko kasuak dira Vitoria-Gasteizko Gazalbide (%39), Pilar (%37,7), Zaramaga (%36,1) eta Txagorritxu (%35,6); Baionako Arenes (%33,6), Bilboko Begoña (%32,9), Iruñako Donibane (%31,9) edo Donostiako Erdialdea (%31,9). Bestalde, gainzahartzearen feminizazio-maila oso handia da Baionako zenbait auzoetan (Mousserolles, Saint Leon, Citadelle Saint Esprit) eta Bilboko Alde Zaharrean, Elorrietan, Zorrotzaurren edo Castaños auzoetan.

Ondorioz, bai biztanleria fluxuaren joera orokorra zein gainontzeko aldagaien segregazio maila aintzat hartzen baditugu, Donostian Amara Berri, Ulia, Egia eta Antiguo, Iruñan Milagrosa Arrosadia, Vitoria-Gasteizen Abetxuko eta Ali Gobeo eta Bilbon Errekaldeberri, Larraskitu, San Inazio eta Zorrotza auzoek balorazio bikaina daukate. Aipatu beharra dago metabolismo demografikoan auzo guztiek gaintitzen dutela bi salbuespenekin: Bilboko Miribilla eta Iruñako Buztintxuri Euntzetxiki. Beraz, egoera demografiko orokorra positiboa da, 7 eta 8ko balorazioa eskuratzen baitute beste 73 auzok.


8. GIZARTE KOHESIOA

8.1. KONTZEPTUA

Auzo eta hiri baten gizarte kohesioa bere geografia barruan gertatzen den elkarrekintza sozialaren ondorioa da eta komunitatearekiko pertenezia edo atxikimendu mailan ikusten da zenbaterainokoa den. Adostasun komunitarioan oinarrituriko harremanak interes komuneko hiri ikuspegia dute abiapuntu, eta hiritar ororen jatorria, maila sozioekonomikoa edo formazio-maila edozein delarik ere, aukera eta eskubide berdintasuna aintzat hartzen ditu.

Illo horretan, gizarte kohesioa kuantifikatzeko helduleku interesgarria da zenbait parametroren segregazio geografikoa aztertzea. Jatorriari, formazio-mailari edo gainzahartzeari loturiko segregazio geografikoak gizarte-kohesioa higa dezakete hiri eta auzoetan. Erabilera iraunkorra ez duten etxebizitzaren presentzia ere gentrifikazioa (edo gentrifikazio arriskua) identifikatzeko elementutzat hartu izan da, bai eta adinekoentzako egoitzen presentzia zahartzearen adierazletzat hartzen den bezala.

8.2. GIZARTE KOHESIOAREN AUZO RANKINGA



PUNTUAZIO HANDIENEN 30 AUZOAK	
Alde Zaharra-Iruñea	
Añorga-Donostia	
Begoña-Bilbo	
San Inazio-Bilbo	
Ariznabarra-Vitoria-Gasteiz	
Ciudad Jardin-Bilbo	
San Adrian-Bilbo	
Aranbizkarra-Vitoria-Gasteiz	
Azpilagaña-Iruñea	
Elorrieta-Bilbo	
Intxaurren-Donostia	
Ibarrekolanda-Bilbo	
Santa Lucia-Vitoria-Gasteiz	
Amara-Donostia	
Saint Etienne Arrousets-Baiona	
Zurbaran-Bilbo	
Antiguo-Donostia	
Ekialdeko landa eremua-Vitoria-Gasteiz	
Iturribide-Bilbo	
Deustu-Bilbo	
Citadelle Saint Esprit-Baiona	
Solokoetxe-Bilbo	
Santiago-Vitoria-Gasteiz	
Beyris-Baiona	
Basurtu-Bilbo	
Olabeaga-Bilbo	
Alde Zaharra-Donostia	
Gros-Donostia	
Atxuri-Bilbo	
Donibane-Iruñea	

PUNTUAZIO TXIKIENEN 30 AUZOAK	
Iturigorri-Peñascal-Bilbo	
Aretxabaleta Gardelegi-Vitoria-Gasteiz	
San Frantzisko-Bilbo	
Altamira-Bilbo	
Sainte Croix-Baiona	
Otxarkoaga-Bilbo	
Zaramaga-Vitoria-Gasteiz	
Bilbo zaharra-Bilbo	
Judimendi-Vitoria-Gasteiz	
Miribilla-Bilbo	
Buztintxuri Euntzetxiki-Iruñea	
Arana-Vitoria-Gasteiz	
Uretamendi-Bilbo	
Abetxuko-Vitoria-Gasteiz	
Coronación-Vitoria-Gasteiz	
Ipar mend. landa eremua-Vitoria-Gasteiz	
Mendizorrotza-Vitoria-Gasteiz	
Altza-Donostia	
Ametzola-Bilbo	
Indautxu-Bilbo	
Ensanche (Zabalgunea)-Vitoria-Gasteiz	
Arabella-Bilbo	
Arangoiti-Bilbo	
Lovaina-Vitoria-Gasteiz	
Arenes-Baiona	
Sanjorge Sanduzelai-Iruñea	
Masustegi-Bilbo	
Ali Gobeo-Vitoria-Gasteiz	
Igeldo-Donostia	
Ermitagaña Mendebaldea-Iruñea	



8.3. GIZARTE KOHESIOAREN DIAGNOSTIKOA

Gizarte kohesioan egindako alderaketen arabera, auzoen artean oreka handiena mantentzen duen hiriburua Donostia da. Aldiz, auzoen arteko desoreka handienak Bilbo eta Vitoria-Gasteizek biltzen dituzte. Esan beharra dago atal honetan, orokorrean Euskal Herriko hiriburuetako auzoen kohesio soziala altua dela, balorazio apala duten hainbat auzo egon arren: Saint Croix Baionan, eta Altamira, Iturrigorri-Peñascal, San Frantzisko eta Otxarkoaga Bilbon. Vitoria-Gasteizko Aretxabaleta Gardelegi osatu gabe dagoen neurrian baita ere.

Auzo hauen problematikaren atzean auzo gehienen gizarte kohesioa higitzen duten bektore nagusiak aurkitu daitezke. Alde batetik, Bilboko San Frantzisko auzoan Europatik kanpo jaio den biztanleriaren presentzia (%30,5) hain handia denez, aspaldidanik etorkinen segregazio eta metaketarako auzoa da. Kasu honetan, gizarte kohesioaren balorazioa kaxkarra izateko arrazoiaren artean, beraz, fenomeno hau nagusitzen da.

Hauxe bera gertatzen da baina modu apalagoan Bilbo Zaharrean eta Iturrigorri-Peñascalen, Vitoria-Gasteizko Alde Zaharrean eta Coronacionen edo Baionako Sainte



>> Euskal hiriburuetako auzoen gizarte kohesioa handia da, baina Saint Croix, Altamira, Iturrigorri-Peñascal, San Frantzisko eta Otxarkoagan gabezi azpimarragarriak daude



Croixen. Baina hiriburuko errealitate orokorrarekiko etorkin gutxiegi izateagatik, eta ondorioz hauen segregazioa indartzeagatik, hainbat kasutan ere gizarte kohesioaren balorazioa apaltzen da. Halako auzoak hiriburu guztietan daude: Txurdinaga, Miribilla, Aretxabaleta Gardelegi, San Martin, Mendillorri edo Baionako auzo gehienak.

Bide berean, gizarte kohesioaren balorazioan eragin negatiboa duen beste faktore bat etxebizitza hutsen presentzia da. Iruñako Buztintxuri Euntzetxiki auzoan dauden etxebizitzak %19,7ak ez dauka erabilera iraunkorrik, hau da, etxebizitza hutsak edo bigarren mailako etxebizitzak dira. Altamiran (%20,5) eta Iturrigorri-Peñascalaren (%15,0) etxebizitza hutsen egoera parekoa da. Auzoak hiriburuan kokapen estrategikoa izanez gero, gentrifikazio izpien edo etorkizunean gentrifikazio prozesu bat emateko orube egokia dagoenaren seinalea izan daiteke.

Hau ez da, ordea, duen kokapen periferikoagatik Buztintxuri Euntzetxiki, Altamira eta Iturrigorri-Peñascal auzoen kasua, baina etorkizunean Iruñako Alde Zaharrarena (%27,3) edo maila batean Donostiako Erdialdearena (%21,6) izan daiteke. Horregatik, etxe hutsak edo bigarren mailako erabilera duten etxebizitza asko izatea gizarte kohesio ahul baten ondorioa da, baita auzoa hiriaren periferian kokatuta badago ere.

Bestalde, auzoen gizarte kohesio maila neurtzerakoan biztanleriaren gainzahartzean hiriburuko auzoen

Donostia



>> Etorkinen edo etorkinik gabeko ghetifikazioa eta etxebizitza hutsen presentzia, gizarte kohesioa higitzen duten faktore nagusien artean

Iruña



artean dagoen segregazio maila aintzat hartu da. Hau handia da hainbat auzotan, Baionako Arenes (%20,1) eta Mousserollesen (%18,0), Vitoria-Gasteizko Judimendin (%19,3) eta Coronacionen (%18,6), Bilboko Larraskitu (%17,7) eta Basurtun (%16,8), Donostiako Erdialdean (%17,3) edo Iruñako Donibanen (%16,4).

Logika berarekin ikasketarik gabeko eta goi-formazioko biztanleriaren presentzia aintzat hartu da, biztanleriaren formazio-maila baldintzatzen duten bi faktore indartsu daudelako: herritarren maila sozioekonomikoa eta biztanleriaren zahartzea. Kasu honetan lehen faktoreari hurbiltzeko helburua daukate.

Nabarmentzekoa da Baionako Saint Croix auzoan oso muturrekoa dela ikasketarik gabekoen presentzia handia (%31,2) eta goi-formaziodunen presentzia txikia (%11,5). Bilboko Altamiran, Iturrigorri-Peñascalen, Uretamendin edo Otxarkoagan ere antzerako gertatzen da. Vitoria-Gasteizen hau Zaramagan, Abetxukon edo Aranan gertatzen da; Donostian Altzan, Martutenen edo Loiolan. Iruñan ez daude hain ageriko kasuak, baina Errotxapean edo Sanjorge Sanduzelaian patroia hau sumatzen da. Euskal hiriburuetan kontrako errealitatea metatzen duten auzoen artean Abando, Vitoria-Gasteizko Zabalgunea, Mendizorrotza, Indautxu, Miramon, Ibaeta edo Aiete daude.

Azkenik, gizarte kohesioaren seinale interesgarria da gizarte eragileen ehun dentsitatea. Ezinezkoa da bereiztea gizarte eragileen eragin esparrua auzoa, hainbat auzo, hiriburu osoa edo harago doan. Ildo horretan, oso nabaria da auzo batzuek hiri mailako gizarte eragileen kapitala metatzen dutela, bai alde zaharretan zein erdiguneko beste auzo batzuetan. Hauxe gertatzen da Baiona Ttipian, non Euskal Herriko hiriburuetako auzoen artean dentsitate handiena metatzen den, baina baita Vitoria-Gasteizko, Iruñako, Bilboko eta Donostiako Alde Zaharretan ere.

Baiona



>> Herritarren formazio-mailaren atzean bi elementu daude: herritarren maila sozioekonomikoa eta zahartze demografikoa

>> Saint Croixen formazio gabeko herritarren segregazio handiena dago

Hiriburuan elkarrekintza sozialerako bizkarrezurra diren auzo horiek alde batera utzita, baita kirol (Mendizorrotza), hezkuntza (Ibaeta) edo enpresa saretzerako (Miramon Zorroaga) azpiegitura handien inguruan metaturiko gizarte eragileak ere, Bilbon nabarmentzekoa da Altamira, Elorrieta, Deustu edo Iturrigorri-Peñascalen dagoen gizarte eragileen ehuna. Donostian hau Igeldon, Amaran edo Añorgan ematen da; Iruñan Milagrosa Arrosadian edo Azpilagañan; Vitoria-Gasteizen Anglon, San Martinen, Adurtzan; eta Baionan, Mousserollesen edo Saint Leonen.

*>> Hiriburuetako hiri-saretze soziala
Alde Zaharretan metatzen da.*

*>> Euskal hiriburuaren artean, Baiona
Ttipian gizarte eragileen dentsitate
handiena dago*


9. ERANSKINA: AUZOEN MUGA GEOGRAFIKOAK

9.1. VITORIA-GASTEIZKO AUZOEN MUGA GEOGRAFIKOAK




Iturria: INE. Ekoizpen propioa.

9.2. BAIONAKO AUZOEN MUGA GEOGRAFIKOAK



Iturria: INSEE. Ekoizpen propioa.

9.3. BILBOKO AUZOEN MUGA GEOGRAFIKOAK




Iturria: INE. Ekoizpen propioa.

9.4. DONOSTIAKO AUZOEN MUGA GEOGRAFIKOAK



Iturria: INE. Ekoizpen propioa.

9.5. IRUÑAKO AUZOEN MUGA GEOGRAFIKOAK



Iturria: INE. Ekoizpen propioa.